



POL. LEGIZAMON. BIZKAIA KALEA, 9 - 48450 ETXEBARRI. BIZKAIA
servicios@lantegibatuak.eus 94 426 41 00 www.lantegibatuak.eus

Gara

Desgaitasuna duten pertsoneri lan aukera egokituak sortzen dizkien irabazi asmorik gabeko erakundea gara. Bereziki adimen desgaitasuna duten bizkaitarrekin dihardugu, haientzat ahalik eta garapen handiena eta bizi kalitate onena lortzeko xedez.

Hori lortzeko, ekimen jasangarriak eta lehiakorak garatzen ditugu, desgaitasuna duen pertsona bakoitzari gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidean eskatutako laguntzak emanez.

Lurraldearen garapenean inplikaturik gaude; zentro eta zerbitzuen sare bat dugu, gure bezeroei eta pertsonei gertutasuna bermatzen diena eta, eskualde guztietan inklusioa eta gizarte-kohesio handiagoa emanez, Bizkaia egituratzen duena.



Erreferentziarako gizarteratze- eta laneratze-eredua



3.139
PERTSONA



%84
DESGAITASUNA
DUTEN PERSONA



20
ZENTRO
PROPIO

Gizarte balio integratua



Sortzen ditugu
Bizkaian

Zerbitzuak



Lantegi Batuak



● Vending

Produktuen sorta zabala eta anitza betetzen dugu; besteak beste, elikagaiak, edariak eta babes indibidualerako ekipook.

● Dokumentuen kudeaketa

Dokumentuen tratamenduan adituak gara: Dokumentu bakoitzaren bizitza-ziklo osoa hartzen dugu barne; digitalizazioa, suntsiketa ziurtatu eta iraunkorra. Operazio-zerbitzuen outsourcing (BPO).



● Lorezaintza

Berdaguneeen kudeaketa integrala, gai izanik instalazioetako zein hiriguneetako behar berezietara egokitzeko.



● Garbiketa

Sektore publiko eta pribatuentzako garbiketa-zerbitzuak eskaintzen ditugu: bideen eta eraikinen garbiketa, hiri-instalazioak, obra-garbiketak, etab.

● Etxez etxeko otorduak

Pertsona nagusientzako eta mendekotasuna duten pertsonentzako etxez etxeko otordu zerbitzuaren bidez, partikular, egoitza eta gizarte zerbitzuen beharrianak estaltzen ditugu.





● Elektronika

Ekipamendu elektronikoaren diseinua, produkzioa, muntaketa eta horren inguruko aholkularitza osoa emateko zerbitzua eskaintzen dugu.



● Kableatuak

Kable, kable-multzo eta mahuken diseinu eta industrializazioarako laguntza teknikoak.



● Muntaketa elektromekanikoak

Espezializazioa eta ingeniari-tza prozesu eta fabrikazioaren diseinuan. Prozesu osoaren kudeaketa egiten dugu; erosketak, etiketak, enbalatzea eta bidalketa.

● Konponbide logistikoak

Bezero bakoitzari egokitu-tako konponbide logistikoaren diseinua eta inplementazioa. Horniketa-katearen trazabilitatea eta kudeaketa bermatzen duten instalazio logistiko propioak ditugu.



● Metalaren eraldaketa

Prozesuen integrazioan oinarritutako produkzio-gaitasuna eta malgutasun handia daukagu. Hainbat materialen fabrikazio eta mekanizazio prozesuetarako konponbideak eskaintzen ditugu, hala nola kobrea, karbono altzairuak, altzairu herdoilgaitzak, latoia, aluminioa, brontzea, alpaka eta POM.





Lantegi Batuak

Enpresa eta administrazioetarako kontratazio eta erosketak publiko arduratsua

Desgaitasuna
duten pertsonak
enpresetan eta
erakundeetan
sartzeko laguntza
integrala



Lagundutako enpleguaren inguruko programa

Enpresei aholkularitza ematen dien doako zerbitzua da. Hautaketa prozesuaz, desgaitasuna duen pertsonaren prestakuntzaz eta jarraipen osoaz arduratzen da.

Kontratazio zuzena posiblea ez denean, salbuespen ziurtagiria lortzeari eta bestelako neurriei buruzko aholkularitza ematen dugu.



Sektore Publikoko Kontratuen legea

SPKLren Laugarren Xedapen Gehigarriak administrazio publiko guztiak behartzen ditu gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezien eta laneratzeko enpresen parte-hartzea esleipen-prozedura batzuetan erreserbatzera, ehuneko bat finkatuta.

Era berean, honako hau ezartzen du: klausula sozialak, Gizartearekiko arduratsuak diren kontratazio publikoena.

Lantegi Batuak gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezi gisa sailkatuta dago, 285 zenbakiarekin.